

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

2379

AGINDUA, 2026ko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, batetik, bederatzigarren aldiz aldatzen duena Hezkuntzako sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Agindua, zeinaren bidez argitara ematen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak, eta, bestetik, bosgarren aldiz aldatzen duena 2023ko urriaren 30eko Agindua, zeinaren bidez argitara eman baitzen hautaketa-prozesu horretan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria eta uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituen bigarren hautatuen zerrenda.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2026ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betez, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko ekainaren 5eko Ebazpenen bederatzigarren aldaketa egin zen (2023ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez zuzendu ziren). Ebazpen horietan, hurrenez hurren, argitara eman ziren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek barematu zituzten merezimenduen behin betiko puntuazioak eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuko merezimenduen guztizko puntuazioak.

Horren arabera, Eider Bengoetxea Intxaurbe eta Aitor Folgoso Ovelleiroren puntuazioak aldatu ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, aipatutako ebazpenean jasotako baldintzetan.

Horren ondorioz, aipatutako hautaketa-prozesua arautzen duten deialdiaren oinarriak ikusita, kidego eta espezialitate bakoitzeko izangaiak merezimendu-lehiaketa bidez lortutako guztizko puntuazioen arabera ordenatu behar dira. Horrela, aukeratutako kidegoaren espezialitatean deitutako plaza guztien kopuru bera edo txikiagoa duten hautagaiak hautatuko dira.

Izangaiak lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatu beharrak eragindako aldaketak ekartzen du hasieran hautatuak izan ez arren, espezialitate horretan hautatutako azken izangaiak lortutakoa baino guztizko puntuazio handiagoa aitortu zaien pertsonak sartu beharra hautatutakoen zerrendan. Hori dela eta, Eider Bengoetxea Intxaurbe eta Aitor Folgoso Ovelleiro hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar dira.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Agindua-ren I. eranskina aldatzea. Agindu horren bidez, argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako

enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak. Aldaketaren helburua hau da:

Aitor Folgoso Ovelleiro izangai hautatu gisa sartzea Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Elikagaien Industriako Prozesuak espezialitatean, txanda irekian, 1. hizkuntza-eskakizuna, epaia betez. Espezialitatean hautatutako azken izangaiak (2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina) 04.9840 puntu lortu zituen guztira. Beraz, 5,2170 puntu eman zaizkionez, hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da.

Bigarrena.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 30eko Aginduaren I. eranskina aldatzea, hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarriari buruzkoa. Agindu horren bidez argitaratu eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria, bai eta uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituzten hautatutako pertsonen bigarren zerrenda ere. Aldaketaren helburua hau da:

Eider Bengoetxea Intxaurbe izangai hautatu gisa sartzea Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Komunikazio-Prozesuak eta Komunikabideak espezialitatean, txanda irekian, 2. hizkuntza-eskakizuna, epaia betez. Espezialitatean hautatutako azken izangaiak (2023ko urriaren 30eko Aginduaren I. eranskina) 5,8460 puntu lortu zituen guztira. Beraz, 7,0620 puntu eman zaizkionez, hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da.

Hirugarrena.– Hogeiei egun balioduneko epea irekitzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, lehenengo eta bigarren ataletan aipatutako izangai hautatuek Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren 8.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkez ditzaten.

Dokumentazioa online aurkeztuko da: <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – Tramitagune – «Administrazio-espedienteak: eskabideak, erreklamazio formalak, errekursoak» – Gainerako izapideak.

Agindu honen eranskinean, zinpeko aitorpenaren eredua argitaratzen da, bai eta «Hautatuek agiriak entregatzea» eredua ere, zeina bete eta adierazitako helbidean ere aurkeztu beharko baita.

Laugarrena.– Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duenak, edo dokumentazio hori aztertuta, deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidean faltsukeriak egiteagatik izan zezakeen erantzukizuna. Halaber, eskubide guztiak galduko ditu azterketa medikoan ez-gai gisa kalifikatzen denak.

Bosgarrena.– Agindu honen aurka, berraztertzeko errekursoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 21a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

I. ERANSKINA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA
HAUTATUEK AGIRIAK ENTREGATZEA

Abizenak:		
Izena:	NANa:	Telefonoa:
Especialitatea:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuan; hori dela-eta, agiri hauek aurkezten ditut (deialdiaren 8 oinarria):		
AURKEZTUKO BEHARREKO DOKUMENTUEN ZERRENTA (Markatu zein entregatuko dituzun) ☐ Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. (*Oharra) ☐ NANa (edo, eskatzaile atzerritarren kasuan, beste dokumentu batzuk - 8.1.a oinarria) (*Oharra) ☐ Zinpeko adierazpena edo hitzematea. ☐ Hizkuntza-eskakizunaren titulua edo ziurtagiria, baldin eta jasota ez badago Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan. ☐ Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiri edo titulua; edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuetsita egotearen titulua edo esperientzia. ☐ Ziurtagiria edo master titulua PPD ☐ Titulazio baliokideak ☐ Irakasle-esperientzia ☐ Epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik zigortua ez izatea adierazten duen ziurtagiria. (*Oharra) ☐ Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea (Espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizial gisa espainiera ez duten pertsonen kasuan)		
(*) Oharra: DOKUMENTUA ENTREGATU BEHAR EZ BADUZU eta kontsultatzeko baimena eman nahi baduzu, EZ MARKATU GOIAN dagokion ataleko koadroa ETA ADIERAZI HEMEN BAIMENA EMATEN DUZULA.		
....., 2026koaren.....a		
Izpta.:		

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENTZAT. HEZKUNTZA SAILA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA
ZINPEKO ADIERAZPENA

Nik,

.....(e)k

,

.....NAN zk duenak,

Zinpeko adierazpena edo hitzmatea EGITEN DUT inongo administrazio publikotatik ez nautela baztertu diziiplina-
espediente baten ondorioz, ez nautela funtzio publikoak egiteko desgaitu, eta ez nagoela sartuta Herri
Administrazioetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezintasun
eta bateraezintasunen inolako legezko kausatan.

....., 2026koaren.....a

Izpta.:

Espainiar nazionalitatea ez duten izangaiek betetzeko:

Nik,(e)

.....NAN zk duenak,

Zinpeko adierazpena edo hitzmatea EGITEN DUT(e)an (Estatuaren izena) Funtzio publikora
sartzea eragozten duen diziiplina-zehapen edo zigor penalik ez dudala.

....., 2026koaren.....a

Izpta.: